



Tolosako eta Orioko ordezkariak bildu ziren Tolosan, Bisigu eta Sagardo Festa aurkezteko. JOSU ARTUTXA

Eskualdeko sagardo guztiak, eskura

Aurtengo Bisigu eta Sagardo Festak Tolosaldeko sagardoak dastatzeko aukera eskainiko du; ostiralean hasiko dira ekitaldiak, baina irekiera larunbat goizean izango da eta Irene Caminos omenduko dute //2

Eskualdeko hiru bertsolarik egin dute aurrera Gipuzkoakoan

Haritz Mujika, Iñigo Gorostazu eta Unai Mendizabal ariko dira udazkenean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan // 3

Mailaz igo da Tolosa CF taldeko bigarren eskubaloitza

Gipuzkoako lehen mailara igo dira tolosarrak, eta horrekin batera ligako txapelak izan dira // 7

Ibarrako Izaskun auzoko jaiak, ekaineko bigarren asteburuan

Egun nagusia ekainaren 10a izango da, astelehena; ohi bezala bertsolariak eta Alurr dantza taldearen emanaldia izango dira // 5



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 TXINDOKIKO ITZALA

Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea

609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 EKAINBERRI museoa:

Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com
ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

3 ENARAK ITZULI

DIRA liburua eta diska

Gari Berasalt eta Sergio Ri G. Txabarri 'Serge'



booktegi.eus

Telefonoz parte hartzeko zenbakia: **54**

Itsasoak eta lurrak bat egiteko festa baino askoz gehiago

Ostiraletik igandera bitarte, XI. Bisigu eta Sagardo Festa ospatuko da Tolosako erdigunean. Aurten, eskualdeko sagardo guztiak dastatzeko aukera izango da.

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosa eta Orio. Orio eta Tolosa. Historia ezberdina duten bi herri, baina aldi berean, ibai berak elkartzen dituen antzeko bi kultura. Oriok, aspalditik lotura berezia izan du bisiguarekin. Tolosan, berriz, urte batzuk atzera eginda, 38 sagardotegi aurkitzen ziren. Hori horrela, Tolosak, betidanik oso estimatuak izan diren bi produktu horiek uztartuko ditu asteburu osoan zehar, Zerkausia erdigunean jarritz.

Txinparta elkarteak, Gipuzkoako Sagardogileen elkarteak eta Tolosa Gourmetek, udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, XI. Bisigu eta Sagardo Festa antolatu dute. Otorduetarako eta bisita gidatuetarako txartelak, turismo bulegoan, 943 697 413 telefono zenbakira deituz edo tour@tolosaldea.eus helbidera idatziz eros daitezke.

SAGARDOA, BERTSOTAN ERE

«Itsasoa eta lurra. Kombinazio bixia dirudi, baina zergatik ez?», esan zuen Amaia Zubeldia, Sagardoa Route elkarteak kideak. Hori egiaztatzeke lehen aukera etzi izango da, Txinparta elkartean egingo duten uztartze afarian. «Bertako produktuak jan bitartean, eskualdeko sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da». Txartelak salgai daude oraindik, 27 euroren truke.

Larunbatean, berriz, Zerkausiko gune bat, sagar zukuarentzat gordeko dute, bertan ezarriko dutelako Sagardoaren Txokoa. Aburuza, Begiristain, Eguzkitza,



300 bisigu erreko dituzte, besteak beste, Luis Mari Uranga (eskuinean) Xixarioko jatetxearen laguntzaz. J.A.

Isastegi, Goikoetxea, Sarasola, Zabala eta Zalvide sagardotegietako ekoizpenez gain, pintxoak ere izango dira, eta bi egunetan egongo da zabalik. Larunbat goizeko irekiera ekitaldian, Irene Caminos bike trial modalitateko txapelduna omenduko dute. Arratsaldean, berriz, bertsoz girotutako dastatzea izango da, Aitor Mendiluze eta Haritz Mujikarekin. «Probatutako sagardo bana, bertsoz azaleratuko dute».

Tolosaldea Tour elkarteak, bestetik, bisita gidatuak antolatu ditu, Alde Zaharrean garai batean izandako sagardotegietan. Bertako historia eta bitxikeriak azalduko dituzte, «lehen zuten garrantzia mantentzen baita». Orbela tabernan amaituko dute, pintxo eta sagardo dastatzearekin. Bisiten kostua 5 eurokoa da.

300 BISIGU, ORIO ESTILORA

Sagardoaz bakarrik, ordea, ez da elikatuko Tolosa. Izan ere, eta orain bi urtera arte protagonista nagusia zen bisiguak ere zeresan nabarmena emango du. Aurten, 300 bat bisigu erretzeko asmoa dute, Orio estilora. Jon Ormazabal Txinparta elkarteak lehendakari ordeak adierazi moduan, «Orioko estiloak izaera ezberdina du. Parrilan botata erretzen dira, eta horretarako, ezinbestekoak diren bi profesionalen laguntza izango dugu: Xixario jatetxeak Luis Mari Uranga eta Kaxiña txakolindegiko Joxe Migel Zendoia. Hortaz, lasai gaude».

Urtero moduan, aldaketa handirik gabe datoz aurtengo bisiguen otorduak. Larunbatean, bazkarian nahiz afarian dastatzeko aukera izango da, eta igan-

dean, berriz, bazkarian soilik. Bisiguaz gain, antxoak, zainzuriak, tomateak, hegaluzea eta Bixigoxo azkenburukoa jango dituzte bertaratutakoek. Berrikuntza modura, eskualdeko sagardoak dastatzeko aukera izango da. Otorduetarako txartelak 55 euroko prezioa dute.

TURISMOA INDARTU NAHIA

Olatz Peonek esker hitzak izan zituen antolatzaileentzat. «Bere hastapenean, Tolosako eragileek bultzatu zuten ekimen hau, eta beraz, gorai patzekoa da egindakoa, oraindik sustatzen jarraitzen dutelako». Gainera, festa honen sorreran, Oriok eta Tolosak «parrilarekiko duten gertutasun hori» aurkitzen dutela nabarmendu zuen Peonek, «bi herrien adiskidetasunaren ikur

EGITARAUA

Maiatzak 31, ostirala

20:30. Uztartze afaria.

Ekainak 1, larunbata

11:30. Bisita gidatua Alde Zaharrean.

11:30-14:30 eta 19:00-21:30. Sagardoak eta pintxoak, Zerkausian.

14:00. Bisiguaren festako bazkaria, Zerkausian.

19:30. Aitor Mendiluze eta Haritz Mujika bertsolariekin dastatze musikatua, Zerkausian.

21:00. Bisiguaren festako afaria, Zerkausian.

Ekainak 2, igandea

11:30. Bisita gidatua Alde Zaharrean.

11:30-14:30. Sagardoak eta pintxoak, Zerkausian.

14:00. Bisiguaren festako bazkaria, Zerkausian.

modura. Orioko parrileroei ere eskerrak eman nahi dizkiegu». Orain gutxi, Haragi 2019 festa ospatu zen Tolosan. «Ukaezina da parrilak herrian duen erreferentzialtasuna. Hori dela eta, kalera aterako ditugu berriz».

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Saileko Maite Cruzadok hartu zuen hitza. Aurrez, Peonek, festa honi ematen dion babesa «eskertu» nahi izan zion. «Guretzako turismoa ardatz estrategikoa da, gure natura eta gastronomia erakutsi nahi ditugu. Turistikoki indar handia eta gastronomia izaera duten ekimenak babesteak, mapan identifikatzera ekarri gaitu» azaldu zuen Cruzadok. «Gipuzkoan dugun altxor bat balioan jartzen du festa honek, bi herrietako erakundeen arteko elkarlana islatuz».

Beste helburuetako bat, Donostiara joaten diren turistak, herrialde osoan zehar banatzea da. «Donostiak nazioartean duen ezagutza oso aberasgarria da guztiontzat, baina Gipuzkoa hori eta askoz gehiago da. Meritu handia du, turistikoki hain emankorra ez den garaian, horrelako festa bat antolatzeak».

IRAGARKI LABURRAK

Zerbitzaria

Tolosaldea. Eskualdeko taberna baterako zerbitzaria behar da. Interesa dutenek, 647 446 363 telefono zenbakira deitu behar dute.

Komertziala

Tolosa. Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. Bidali kurrikuluma info@landanet.net helbidera edo deitu 943 318 606 zenbakira.

Kuadrilla eguneko bazkarirako txartelak salgai, ostiralean

GIZARTEA // Kuadrilla eguna gerturatu ari da. Ekainaren 22an ospatuko da eta Euskal Herria plazako bazkarirako txartelak Orbela tabernan jarriko dituzte salgai, etzi (18:00-20:30) eta larunbatean (12:00-14:00). 5 euro balio dute, eta jana etxetik eman beharko da. Aurtengo gaia *Tolosako hondartza* dela gogoratu dute antolatzaileek.

BLOK Arte Eskolako ikasleen lanak ikusteko aukera

KULTURA // BLOK Arte Eskolak ikasturtean zehar ikasleek egindako lanen aukeraketa bat egin eta ikusgai jarri du. Topic-eko gela bat kolore biziz bete dute, eta aukera paregabea da eskualdeko haur eta gazteek artistikoki egindako aurrerapausoak ikusteko. Erakusketa bihar arte dago zabalik ondorengo ordutegian: 10:00-13:00 eta 15:00-19:00.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Zazpitik hiru bertsolarik egin dute aurrera

Haritz Mujika, Iñigo Gorostarzu eta Unai Mendizabal, udazkenean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ariko dira

Erredakzioa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan kantatu ahal izateko sailkapen fasean 84 bertsolarik hartu dute parte, eta horietatik 37k lortu dute aurrera egitea. Tartean dira, eskualdeko Haritz Mujika asteasuarra, Iñigo Gorostarzu *Etxorde* berastegierra eta Unai Mendizabal zizurkildarra. Sailkapen fasean parte hartu ondoren, kanpoan geratu dira Adur Gorostidi abaltzisketarra, Imanol Irazustabarrena alegiarrak, Txomin Azpiroz anoetarra eta Ander Goikoetxea *Andriu* billabonatarra. Udazkenean abiatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, sailkatutako 37 bertsolari hauei, beste hamalau batuko zaizkie, horien artean Oihana Iguaran, Mikel Artola eta Beñat Iguaran. Aurki aurkeztuko dute txapelketa Asteasun.

Sailkapen faseko saioak lau asteburutan jokatu dira. Bi multzotan banatu dituzte bertsolariek, eta hamalau saio izan dira guztira; Asteasu, Anoeta, Altzo eta Zizurkilen ere antolatu dira saio horietako batzuk.

SAILKATUTAKOAK

84 bertsolarik kantatu dute sailkapen fasean, eta bi multzotan banatuta, 37 hauek sailkatu dira.

A MULTZOA

Maidier Arregi (338,5), Aitor Salegi (335,5), Jokin Uranga (333,5), Jokin Bergara (324,5), Amaia Iturriotz (324), Eneko Araiztegi (319), Eñaut Martikorena (318), **Iñigo Gorostarzu Etxorde (316,5)**, Eli Pagola (316), Unai Izagirre (316), Ane Zuazubiskar (314,5), Iban Urdangarin (312,5), Gorka Maiz (310), Ane Labaka (309), Beñat Jauregi (305,5), Odei Lopez (304,5) eta Andoni Mujika (304,5).

B MULTZOA

Haritz Mujika (344), Iñaki Zelaia (339), Iñigo Izagirre (333,5), Unai Muñoa (329), Asier Azpiroz (329), Mikel Tapia (328), Oier Aizpurua (327), Iñigo Manzidor *Mantxi* (327), Manex Mujika (325,5), Iker Ormazabal (325), Endika Igarzabal (315,5), Aratz Igarzabal (315), **Unai Mendizabal (314)**, Aitor Urbietta (311,5), Oier Etxeberria (309,5), Ainhoa Agirreazaldegi (308,5) eta Maialen Akizu (308).

Maiatzaren 25eko Ardo Azokan ateratako zenbakiak

AMASA-VILLABONA // Hauek dira zenbaki saridunak: Castillo Laserna 1104, Iñaki Nuñez 3711, Hermanos Lurton 2.263, Rietos Robles 0040, Castillo Monjardin 3668, Masia Freye 3344, Urruzola 0436 eta Arbela 3672. Loteak jasotzeko honako telefono zenbakira deitu beharko da: 647 23 67 29.

Jai batzordearen bilera egingo dute Santioak prestatzeko

AMASA-VILLABONA // Gaur, maiatzak 29, asteazkena, Villabonako jai batzordeak bilera egingo du. Osoko bilkura aretoan izango da 19:30ean eta besteak beste, 2019ko Santio jaien behin-behineko programazioaren inguruan hitz egingo dute bertaratutakoek. Deialdia luzatu diete herritar guztiei.

Dokumental emanaldia Senidetze Astearen barruan

AMASA-VILLABONA // Senidetze Astearen inguruan hainbat ekintza antolatu dira Aiztondo bailaran. Horien artean, *El Salvadorrekin Elkarlanean* dokumentala proiektatuko da, gaur maiatzak 29, 19:30ean, Subijana etxean. Dokumentala ikusi ondoren, gaiaren inguruko mahai inguru bat antolatu da.



BURUHANDI BERRIAK VILLABONAN

Herritarren botoek aukeratutako pertsonaien buruhandiak egin ditu Hermanos Garate enpresa iruindarrak. **Pilota da petsonaietako bat, heldua den gizon batek irudikatzen du eta kirol honen antzinakotasunari egiten dio erreferentzia; bigarrenik Zezena egin dute sokamuturrak duen garrantzia islatzeko; hirugarrenik festa tradizionalaren omenezko Oilaskoa pertsonaia gorpuztu dute; eta, azkenik, Amasako Martina Sorgina pertsonaia egin dute.** ATARIA

Txapartegi babesteko eskatu diote Suitzari

Suitzan eratu den Free Nekane babes taldeak ohartarazi du Espainiak berriz eska dezakeela asteasuaren estradizioa

Erredakzioa Asteasu

Espainiako estatuak estradizio eskaera berri bat egingo balu, torturaren inguruan posizionatu beharko luke Suitzak, Free Nekane babes taldeak ohar batean adierazi duenez: «Jazarpen politiko berritu hau traumatikoa bihurtzen ari da. Suitzari eskatzen diogu torturaren debeku erabatekoa errespetatu eta behar bezalako babesa eskaini diezailela tortura sexistatik bizirik irteadakoek».

Europar barrena ibiltzeko dokumentazio faltsua erabili izana egotzen diote Txapartegiri eta Espainiako Auzitegi Nazionalak auzi berria ireki dio horregatik. Maiatzaren 22an deitu zuten Bernako epaitegira, baina ihesla-

ri politikoak uko egin zion deklaratzeari. Auzi berria torturapean egindako deklarazioetan oinarritzen dela adierazi zuten asteasuarrak Suitzako agintariei eta honenbestez Espainiako estatuak egindako eskaera, nazioarteko zuzenbidearen eta Suitzako legediaren arabera «onartezina» dela.

Aurreko asteazkenean Espainiako estatuak estradizio eskaera berri bat aurkezteko asmoa duela iragarri eta atxilotzeko agindu batekin mehatxatu zuten Txapartegi. Free Nekane elkartasun taldeak uste du, Suitzak ez duela iheslaria behar bezala babestu. Aurretik ere 2016ko apirilean atzeman zuten Espainiako estatuak egindako eskaera tarte-ko eta 2017ko irailean libre utzi

Auzitegi Nazionalak hari egotzitako delitua preskribatutzat eman eta gero.

Asteasuako iheslariak asilo politikoa eskaera egin zuen, baina Suitzako Auzitegi Administratibo Federalak ez zuen onartu, delitua preskribatuta zegoela esan eta dagoeneko jazarpenarako arriskurik ez zegoela argudiatuta. Free Nekane taldeak zehaztu du asiloa ukatu ziotenean, 2017ko azaroan, Suitzako Auzitegi Gorenak eta Auzitegi Administratibo Federalak «sinesgarri» jo zituela Txapartegiren tortura salaketak. Beraz, auzi berri bat zabaltzeak «jazarpen politiko berritua» dagoela erakusten duenez, Suitzari eskatu diote «behar bezalako babesa» emateko iheslari euskaldunari.



IRIZIBARRERA TXANGOIA

Ikasturtean zehar ekimen desberdinak antolatzen ditu Gal-tzaundi Euskara Taldeak mintzalaguntzat. Udaberriean, eskualdeko toki esanguratsuren batera irteera antolatu ohi du. Aurtengoan, Zizurkilen dagoen Irizibarko karobia bisitatu dute eta Joxin Azkuek egin ditu gida lanak. ATARIA

Ikasleei zuzendutako grafiti tailerra antolatu dute, Alegian

Eskola atzeko patioari itxura berria emateko antolatu du Iturri Zahar Guraso Elkarteak

E. Maiz Alegia

Aurten ere Iturri Zahar Guraso Elkarteak, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, grafiti ikastaroa antolatu du GKO Galleryko Gari Muruarekin. Asmoa, atzeko patioko lurrari itxura berri bat ematea da. «Ikasle bakoitzak bi egunetan parte hartuko du. Ikasleak bi taldeetan banatuko dira eta ikastaroak bi alderdi izango ditu», azaldu dute guraso elkartetik.

Lehenengo egunean Topaketa egingo da. Taldean, grafitilariekin egin beharreko lanak eztabaidatu eta aukeratuko dituzte. Bigarren egunean, berriz, margotze lanak burutu beharko dituzte. Ekimen honen kostua bost eurokoa izango da. Izen ematea, iturri zahar@alegiakoeskola.org

emailera ikaslearen izena, ikasmaila eta kontakturako telefono bat zehaztuz idatzi beharko da.

Parte hartzaileak LH 1. mailatik LH 6. mailara bitartekoak izango dira. Topaketa egunak: ekainak 6 (lehen taldea) eta ekainak 7 (bigarren taldea). Eta grafiti egunak ekainak 11 (lehen taldea) eta ekainak 12 (bigarren taldea) izango dira. Saio guztiak 16:00etan hasiko dira.

Ohar pare bat ere jakinarazi dituzte: kanpoko ekintza denez, eguraldiaren arabera, margotze eguna atzeratu daiteke; eta arropa zaharrak eramatea gomendatzen da, garbitu ezin daitekeen pinturarekin zikindu daitezke eta. Izena emateko epea hilaren 31n bukatuko da, eta guraso elkartetik jakinarazi dutenez, epekanpo ez dute inor onartuko.

Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko, app berria

Amezketako Udalak mugikorrerako aplikazio berria sortu du: AmezketApp. Dagoeneko eskuragarri dago Interneta duen edozein mugikorretan erabiltzeko

Eneritz Maiz Etxarri Amezket

Amezketako Udalak mugikorrerako erabiltzeko aplikazio berria abian jarri du: AmezketApp. Dagoeneko eskuragarri dago, eta Apple-eko *app store* edo Android-eko *play store* aplikazioen bitartez jaitsi daiteke Interneta duen mugikorrera. Bitarteko bat gehiago jarri du udalak herritarrei hurbiltzea helburu jarrita. Era berean, amezketarrak udalari zuzentzeko bide bat gehiago izango dute.

AmezketApp-arekin teknologia berrien abantailez baliatu nahi du udalak. Udal erabakiak eta jarduerak are parte hartzaileagoak izatea lortu nahi dute: «Gaur egun, ia denek smartphone bat dute patrikan, eta honek sekulako aukerak ematen ditu partaidetzaren ikuspegitik». Honela, herritarrekin harremana eta komunikazioa erraztu eta areagotu nahi dituzte. AmezketApp bidez, «herritarrek Amezketako Udalak egiten dituen aurrerapenen eta onartzen dituen programen eta ekintzen berri izango dute», gaineratu dute, eta «herritarrek bidaltzen dituzten gertaerei arreta jarriko zaie», azaldu dute. Gainera, «udalari bere eguneroko kudeaketan eta plangintzan erabakiak hartzen lagunduko dio, eta guzti hori, gobernu onaren eta gardentasuna-



Herritarren artean zabaldute App-a erabilgarri dagoela. E. MAIZ

ren printzipioetan oinarrituko da», azpimarratu dute.

Udalak AmezketApp-aren erabilera zehatzaren argibideak jasotzen dituen eskuorria argitaratu du, etxez etxe banatzeko, aplikazioaren deskarga errazteko QR kodea ere eskura jarri du.

AUKERA EZBERDINAK

App-ak funtzio ezberdinak eta partaidetzarako bideak eskainiko ditu udalaren esanetan. Galdeketen kasuan, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetza Zuzendaritzak IZFEren eskutik, prestatzen ari den web orrira sarbidea izango du.

Herrian suertatzen diren gorabeherak jakinarazteko aukera

ere eskainiko du, hau da, udalari herriko edozein gertaera bidali ahalko zaio, argazkia eta geolokalizazioarekin. Momentuan bertan udaletxean jasoko dute informazioa, eta honek erantzuna azkarra izatea ahalbidetuko duela adierazi dute udaletik.

Herriko edo udaletxeko albiste eta oharrak bidaltzeko ere erabiliko da. Zerbait argitaratzen denean aplikazioaren erabiltzaileek abisu bat jasotzeko aukera izango dute.

Horiez gain, udaletxeko web orrira, www.amezketa.eus-era, sarbide zuzena izango du, aplikazioak ahalbidetzen ez duen beste edozein kontsulta edo tramite egin ahal izateko.



SAIAZ, ESKOLAN SARTUZ

Bidania-Goiazko eskolan bideo emanaldia eta argazki erakusketa antolatu zituen Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak. Eguneko zentroko onuradunak eta ostegunero eguneko arretan parte hartzen dutenak ere bertaratu ziren. ATARIA

zozketak

Atarikideentzat 2 afari txartel ditugu

BISIGU eta SAGARDO FESTA
TOLOSA - MAIATZAN 01 - EKAINAK 2

BISIGUAREN FESTAKO AFARIRAKO

2 sarrera zozketatzen ditugu

Ekainaren 1ean, 21:00etan, Tolosako Zerkausian.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Albizturko Udalak bi begirale behar ditu udalekuetarako

E. Maiz Albiztur

Albizturko Udalak iragarri du bi begirale behar dituela udan udalekuak antolatzeko. Interesa dutenak udalarekin jarri beharko dira harremanetan hilaren 31 baino lehen. 943 654 426 telefono zenbakian edo udala@albiztur.eus helbide elektronikoan.

Udaleku irekiak 3 urtetik 12 urte bitartekoentzat antolatuko dituzte, eta ekainaren 24tik uztailearen 12ra izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko azken eguna maiatzaren 31 da. Zaintza zerbitzua behar bada aldeztu aurretik adierazi beharko da, eta egun batzuetan egun guztiko irteerak izango di-

tuzte. Familiako kide bakarra bada 75 euro ordaindu beharko da, eta familia berdineko kide bat baino gehiagok parte hartzen bada, 70 euro.

Udaleku Itxiak 12 urtetik 17 urte bitartekoentzat izango dira. Topaketa ekainaren 8an egingo dute goizez, eta arratsaldean guraso bilera egingo dute.

Asier Kidam magoaren saioa, bihar, Galtzaundin

IBARRA // Ibarrako Galtzaundi tabernan hilabeteko azken ostegunetan ekitaldiak antolatu ohi ditu Galtzaundi taldeak. Ostegun honetarako, biharko, Asier Kidam magoa gonbidatu dute, eta 19:00etan izango da ikuskitzuna, Galtzaundi tabernan.

Bingo sari berezia eta toka txapelketa, Gaztainondon

BERASTEGI // Azken boladan, ekitaldi ezberdinak egiten ari dira Gaztainondo elkarteak. Bihar, 18:00etan, bingoan jokatzeko tartea hartuko dute, eta sari berezia izango da jokoan. Ostiralean, berriz, toka txapelketa egingo dute, 17:00etan hasita.

Kultura eta gazteria arloko diru laguntzen deialdia zabaldu dute

IBARRA // Herrian kultura sustatzeko lan egiten duten elkarte eta eragileei zuzendutako diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu Ibarrako Udalak. Urte osoko programaziorako edo ekintza jakin bat egiteko eska daitezke.

Larunbatean erromeria eguna izango dute Lizartzako herritarrek

I. Saizar Artola Lizartza

Garaiko euskal jantziei hautsak kendu eta erromeri egunean parte hartzeko deia egin dute Lizartzako Otsolar dantza taldeko kideek. Ohitura bilakatu zaie urteko egun batez, erromeriaz gozatzearena, eta horrelaxe egingo dute, larunbatean.

Egunari hasiera dantza emanaldi batekin emango diote. 12:00etan hasiko da, eta herriko Otsolar dantza taldeko kideez gain, Oinkarikoek eta Udaberrikoek hartuko dute parte. Horren ostean, 13:00ak aldera, herritar guztiei zuzendutako plaza dantzak egingo dituzte.

Festarekin jarraitzeko, herri bazkaria egingo dute 14:30ean. Txartelak salgai daude herriko tabernan eta dendan, osteguna bitarte. Ondoren, kantatzeko aukera izango da herriko musikarientzako eskutik. Arratsaldean, 18:00ak inguruan, erromeria izango da Gari eta Iñakirekin, eta sagardo eta pintxo dastaketarekin amaituko dute eguna.

Izaskungo jaiak ekainaren 8tik 10era ospatuko dituzte

Hiru egunetako egitaraua antolatu dute Ibarrako Izaskun auzoko jaietarako; ekainaren 10a izango dute egun nagusia

Irati Saizar Artola Ibarra

Suziria ekainaren 8an lehertuko da Ibarrako Izaskun auzoan. Hiru eguneko gozatzeko egitaraua antolatu du Izaskungo Festa Batzordeak. Ostiralean bertan hasiko dituzte ekitaldiak; poney eta zezen txikiak emango diete festei hasiera.

Jaien egun nagusia, ordea, astelehenean izango dute. Hamaitakoa, bertsolariak, Alurren dantza emanaldia eta erromeria izango dira, besteak beste.



Aurten ere, igandean egingo dute herri bazkaria. Irudian, iazko bazkaria. I. SAIZAR

EGITARAUA

Ekainak 8, larunbata

18:00. Jaien hasiera zezen txikiak eta poneyak Lopene ganadutegiaren eskutik.

Ondoren. Pintxo eta sagardo dastatzea.

Ekainak 9, igandea

12:00. Aizkolariak: Xabier Orbegozo Arria V.a eta Ruben Saralegi.

14:30. Herri bazkaria. Ondoren, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolarien emanaldia.

19:00. Puro Relajo taldearen emanaldia.

Ekainak 10, astelehena

10:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Herri hamaitakoa.

13:00. Bertso saioa: Sebastian Liza-so eta Anjel Mari Peñagarikano.

17:30. Alurr dantza taldearen emanaldia.

Jarraian. Haurrentzako gozokiak.

18:30. Bertso saioa: Sebastian Liza-so eta Anjel Mari Peñagarikano.

19:30. Erromeria Loatzo Musika Eskolako soinu joleen eskutik, eta jaien amaiera.

GUTUNAK

Zurekin gaude Minde

Badira aste batzuk, lagunartean poztasun berezi bat antzematen genuela. 17 urteko erbeste eta espetxealdiaren ondoren, Maite gure artean zen, besarkada eta poz malkoen artean. Ibarra, preso eta iheslaririk gabeko herria zela ospatzeko unea iritsi zitzaigun, azkenean. Ederki ospatu genuen, bai horixe!

Gogor kolpatu du gure belau-naldia erreprezioak eta bereziki tematu da gertuko lagunartearrekin; Eider eta Ekaitz eramane zizkiguten lehenik, Maite, Minde....ondoren.

Haritz, Gaizka, Eñaut, Josu, Mikel, Jon, Gari, Goar, Ibon... Iñigo eta Gariren deserria...

Tortura basatiak, urte luzeetako dispersioa eta espetxeko baldintza gogorrek, zein erbesteak, sufrimendu eta neke latza ekarri digute eta amesgaizto hori bukatzeak sekulako zama kendu digu guztioi.

Gutxi iraun digu, ordea, poz eta lasaitasun sentsazio horrek.

Berriki egunkarietan irakurri dugun berri batek astindu ditu gure barrenak beste behin, ETaren espetxe frontea delakoa osatzea egotzita, 47 lagun epaituko dituzte auzitegi nazionalen, tartean, Minde, gure laguna.

Haserre gaude, kezkatuta, triste. Amesgaiztoa bukatu zela uste genuenean kolpatu gaituelako berriro erreprezioaren mamuak, ustekabeak.

Fiskalak 8 eta 21 urte arteko espetxealdiak eskatu ditu, 601 urte denera, eta 15 urteko eskaera Minderen kasuan. Hori nahikoa ez balitz, beste 4 eta 8 urte arteko zaintzapeko zigorra eta 11.600 euro isunetan.

Atsekabez jaso dugu berria, ulergaitza egiten zaigu oraindik betikoek mendekuan oinarritutako politikarekin jarraitzeko duten obsesioa. Beste behin ere konponbidearen aurka eginez, euskal jendartearen samina eta etsipena zabalduz.

2013ko irailean Herriraren aurka eginiko polizia operazioan du jatorria 11/2013 sumarioak.

2015eko urtarrilaren 12an atxi-

lotu eta Aranjuezen 13 hilabetez espetxeratu zuten Minde, 20.000 euroko bermea ordaindu eta aske geratu zen arte. Aurrez, 5 urte espetxean egona zen eta ondotox ezagutzen ditugu espetxe politika anker honen ondorio gordinak.

Badakigu akusazioek ez dutela ez hanka eta ez bururik. ETako kide izatea eta haren agindueta-egotea leporatzen diete, noiz eta ETak berak armak utziak zituela iragarri eta desegiteko borondatea agertua zuenean.

Ez al da tresneria judizial eta juridikoa behingoz egoera politikora egokitze garaia? Noiz arte mendekuan oinarrituriko iraganeko politikak? Ez al dugu esku-biderik behingoz bakean eta askatasunean bizitzeko?

Minde ezagutzen dugunok, badakigu preso eta iheslariak etxera ekartzeko konpromiso sendoa duen pertsona dela; gutako norbait espetxean edo erbestean egotea egokitu zaiguneko gure alboan egon dela; konponbidearen alde eta preso eta iheslariak etxeratze bi-

dean, umil eta zintzo bere onena eman duela, eta bide horretan, azken errepreliatua ekarri arteko borrokan jarraitzeko konpromiso irmoa duela. Eta horixe da hain zuzen, irailetik aurrera epaituko dena, euskal errepreliatu politikoei elkartasuna eta konpromisoa.

Bakeak espetxeak hustea eskatzen du, ez haiek euskal herritar gehiagorekin betetzea! Guri ere badagokigu, noski, norabide horretan indarra egitea.

Ez gaude bidegabekeri berri hau onartzeko prest eta hori ekiditeko gure esku dagoen guztia egiteko prest gaude.

Bukatzeke, Minde eta senideei gure babes, elkartasun eta maitasun osoa azaltzeaz gain, momentu gogor hauetan beraien ondoan egongo garela adierazi nahi diegu.

Konponbidearen aurkako eraso berri hau salatzeke, zein oinarrian dagoen preso eta erbestertuen egoera konpontzeko aldarrikatuz, auzipetuek nazio mailan prestatzen ari diren mobilizazio herritarrean, zein Iba-

rran bertan antolatu daitezkeen mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu.

Ez dugu herrian preso gehiagorik behar, ez dugu preso gehiagorik nahi! Bakean bizi nahi dugu, askatasunean.

Minde, Oihana, zuekin gaude!

Laida Zubillaga eta Gaizka Altuna
Ibarrako zure kuadrilla osoaren izenean

Elkarbizitzaren alde

Lizartzan azken udal hauteskundeak irabazi dituen EH Bilduko taldeak, eskerrak eman nahi dizkie bere botoekin konfiantza erakutsi duten herritarrei. Ez dugu huts egingo!

Era berean, hauteskunde gauean, EQUO taldeko zerrenda buruari pintaketa bat egin zioten etxe atarian, eta EH Bilduko udal talde berriak herriko elkarbizitzaren aldeko jarrera irmoa duela plazaratu nahi du, eta horren aurkako edozein ekintza edo jarrera desegoki salatu egiten du. Herri bizia, bizi herria!

Lizartzako EH Bilduko udal talde berria

Europako surf egokituko txapelketa irabazi du Ibon Mugerzak

Europako surf egokituko finalak jokatu ziren asteburuan Viana do Castelon, Portugalen, eta surflari tolosarrak lehen postua eskuratu zuen AS I mailan.

Erredakzioa Tolosa

Portugalen jokaturako Europa-ko surf egokituko finalean, Zarautzen bizi den Ibon Mugerza (Tolosa, 1984) izan zen lehen postua lortu zuena AS I mailan. 15, 83 puntu lortu zituen tolosarrak eta atzean utzi zituen Camilo Abdula portugaldarra (13,84 puntu), eta Benoit Moreau (10,44 puntu) eta Phillipe Naud (12,17 puntu) frantziarrak.

Mugerzak paralisia du eskuin besoan 21 urterekin izandako moto istripu larri baten ondorioz. *Gorputz-atal fantasmaren mina* izeneko gaixotasuna du, eta kirola izan du sendagai bakar.

Surfa egiteko betidanik izan duen afizioari eutsi dio eta, horrekin batera, erronka berriak jartzen dizkio bere buruari, slackline-a, skate-a nahiz eskalaztea bezalako kirolak eginez.



Ibon Mugerza surflaria Portugalgo txapelketan. BAT BASQUE TEAM

ESKUZ

BENJAMINAKA (4. JARDUNALDIA)

BERASTEGI

Urkola-Iraola	8
Lacarra-Erro	16
Aranalde-Navas-Baleztena	6
Tolosa-Yurrita	16
Aizpurua-Odriozabala	16
Maioz-Maioz	7
Leo-Zubillaga	3
Vidaurreta-Lacarra	16
Gabarain-Rehecho	16
Aseginolaza-Aldaz-Martinez	9

ALKIZA

Lertxundi-Urdapilleta	1
Zuriarrain-Lasa	16
Altuna-Arandia	16
Iglesias-Aristondo	3
Ormaetxea-Urkola-Elola	16
Dieguez-Garmendia	13
Garcia-Estevez	16
Aizpuru-Etxeberria	3

IBARRA

Aramburu-Azurmendi	10
Galarraga-Gurrutxaga	16
Argote-DelRio	12
Garaikoetxea-Otegi	16
Iraola-Navarro	16
Arruabarrena-Altuna	3
Zaldua-Etxetxipia-Lasa	16
Ariño-Altuna	13

BENJAMINAK B (4. JARDUNALDIA)

VILLABONA

Fernandez-Ardanaz	16
Telleria-Ipentza	0
Lanzeta-Iraola	16
Goenzaga-Aranzabe	3
Gibelalde-Paulino-Artola	16
Etxetxipia-Maritxalar-Castro	15
Artola-Elosegi-Galarraga	0
Arteaga-Nazabal	16

ALBIZTUR

Malkorra-Arsuaga-Goikoetxea	8
Martin-Saizar	16
Zubillaga-Saizar	16
Dieguez-Albizu	1
Sagarna-Kamio	16
Estevez-Labaka	15
Otaño-Gurrutxaga	16
Ezeiza-Juantorena	6
Herrero-Iturrioz-Garmendia	16
Mujika-Altuna	10
Aizpuru-Gaztañaga	16
Ladabera-Otegi	15

ANOETA

Aierdi-Hermida-Ibarbia	8
Telletxea-Zabala	16
Saralegi-Saralegi	16
Otegi-Erro	1
Xabala-Aranbarri	8
Telletxea-Zabala	16

ALEBINAK (4. JARDUNALDIA)

ALTZO

Agirre-Tolosa	16
Iturbe-Gurrutxaga-Etxart	7
Labaien-Ugartemendia	16
Argote-Balardi	8
Castro-Iglesias	16
Larrarte-Oñate	4



Murua-Elola	16
Jauregi-Mendia	8

ZIZURKIL

Imaz-Pablo	16
Artola-Mintegi	3
Insausti-Lopetegi	16
Zufiria-Aranburu	10
Iraola-Zabala-Ugartemendia	9
Aburua-Irazu	16
Meulman-Otaegi	16
Goenaga-Olasagasti	3

IKAZTEGIETA

Ugartemendia-Gorostiaga	16
Alvarez-Garzia-Gorostiaga	0
Zubillaga-Lobo	16
Cestau-Aburuza	14
Lopetegi-Munduete	16
Tejera-Tolosa	8
Altuna-Perurena	16
Arrieta-Arruabarrena	0

INFANTILAK (3. JARDUNALDIA)

AMEZKETA

Cestau-Miner-Zabala	7
Gorostidi-Mujika	18
Dorronsoro-Iraeta	18
Iturrioz-Onsalo	0
Tolosa-Aranzadi	6
Ruiz-Balardi	18

PALAZ

INFANTILAK (2. JARDUNALDIA)

BIDANIA

Agirre-Ugartemendia	10
Aramendi-Iraola	20
Maiz-Urkola-Jauregi	6
Arretxe-Tejera	20
Goitia-Uzkudun	15
Faz-Zubizarreta-Etxeberria	20
Otaegi-Aranburu	20
Baldra-Astrain	4

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Igoera lortu duen Tolosa CF-ko bigarren eskubaloi taldea. ATARIA

Tolosa CF-ko bigarren eskubaloi taldea mailaz igo da

Legazpiko Urbeltz taberna taldeari 28-8 irabazita, Tolosa CF-ko bigarren eskubaloi taldea Gipuzkoako lehen mailara igo da. Ligako txapelkun ere izan dira

Irati Urdalleta Lete

Tolosa CF-ko gizonzkoen bigarren eskubaloi taldeak lortu du aurtengo helburu nagusia: mailaz igo dira.

Pasa den asteburuan jokatu zuten irabazi beharreko partida eta hala egin zuten; 28 eta 8 gailendu zitzaizkien Legazpiko Urbeltz taberna taldeari. Hortaz, datorren urtean, Gipuzkoako lehen mailan arituko dira. Maila igoera gutxi ez eta ligako txapelkunak ere izan dira.

Aritz Garmendia entrenatzaileak adierazi duen bezala, bigarren zihozaren eta beraien esku zegoen mailaz igotzea. «Printzipioz, erraza edo erosoan izan behar zuen, eta halaxe izan zen». Izan ere, aurrean zuten taldeak ez zuen ezer jokatu.

Zortzi gol bakarrik jasotzearen gako defentsako lana izan zela dio Garmendiak: «Defentsan

sendo atera ginen eta, hasieran, asko kostatu zitzaizkien golak egitea». 28 eta 8ko aldea horren ondorioa izan zela iruditzen zaio. «%100ean atera ginen, partida horretan jolasten genuelako denboraldi osoa», dio Garmendiak.

Asteburuko partidaren aurretik, bigarren postuan zeuden tolosarrak eta lehenengo sailkatuak eta hirugarrenak elkarren aurka jokatu zuten. Azkenean, hirugarren sailkatuta zegoen Zumarragako Urolak lortu zuen irabaztea, eta tolosarrekin batera mailaz igoko da.

Aurten mailaz igota, lehenengo urtean galdu zutena berreskuratuko dute, hau da, Gipuzkoako lehenengo mailan jokatzeko aukera. Horren arrazoi nagusia jokalarien gaztetasuna zela iruditzen zaio Garmendiari. Izan ere, gehienak jubenetatik igo berriak ziren. «Aurten urtebete

gehiago daukate eta nabaritu da. Gainera, hurrengo urterako ere esperientzia hori irabazi dugu».

Behin denboraldia amaituta, datorren denboraldiari begira jarri dira. Garmendiaren ustez, aurten baino maila altuagoa egongo da. «Berdintasun handiagoa dago talde guztien artean», gaineratu du. Iruditzen zaio hori ona izango dela, batez ere, gazteentzat, partida guztietan erakutsi beharko dutelako daukaten maila.

Jokalariei dagokienez, «lehenengo taldea zer markatuko zain» daude. Izan ere, begiratu egin beharko dute lehenengo taldean nor jarraitzen duen baita zenbat jokalarik igoko diren bertara ere. Gainera, bigarren taldeari aurten Euskadiko bigarrenak izan diren jubenetatik ere dezentzera igoko dira. «Jokalaririk politikak datoz», azpimarratu du entrenatzaileak.

Igandean Gasteizera



Harmailetatik

Benito Aldalur

Tolosa CF, Euskal Liga

Aurten disfrutatzen ari gara gure alabaren futbola dela medio, gurasoak inoiz baino motibatuago gaude asteburuko partida noiz iritsiko den zain. Realeko bazkidea izan arren, hiruzpalau aldiz soilik joan naiz. Futbol joko bizi eta ikusgarri batez gozatzeko Donostiara joateko beharrik ez dudala konturatu bainaiz gure neskek transmititzen duten gogo zein ilusioarengatik.

Gureak urte batzuk daramazkete gorengo maila erakusten, Guardiolaen tiki-taka eredu izanik, bizpahiru urte gogor ondoren erregionaletik bigarren mailako igoera lortu dute. Nere alabaren belaunaldia bikaina da, txikitatik jarraitu dut eta orain-

dik ere aho zabalik uzten naute. Entrenamendu bukaerak ikuste-ko ohitura ere badut eta esan beharra dago, sekulako konpetentzia, seriotasuna eta giroa sentitzen ditudala. Orain, unibertsitatean azterketa garaian daude, baina hala ere, entrenatzaera joateko denbora ere nolabait ateratzen dute.

Igandean kopan Goierri Gorri izan genuen aurkari, partida ederra jokatu zuten 1-3koarekin garaituz. Golegileak, Bengo, Maddi (penaltiz) eta Saioa izan genituen. Golak ikusgarriak izan ziren jokaldi ederrei jarraituz. Orokorrean, norgehiagokan nagusi izan ziren nahiz eta 15 bat minutuan joko nahasi samarra ere izan. Gogoia genuen gure taldearen bigarren mailako beste talderen batekin alderatzeko, Oiarzun atzean utzi eta orain gasteiztarrek ditugu helburu. Datorren igandean, 11:30ean han izango gara Aurrera De Vitoria-ri aurre egiteko (Alaves handia penalti jaurtiketetan gailendu zuen). Beraz, igandean Tolosa taldearen zaleen babesaren izango duzue eta hori gutxi ez balitz hamaiketako nire kontu. Aupa Tolosa, Trakatra!



KAIOLAKO JARDUNALDIA

Tolosako San Juan Txapelketaren jardunaldi berria jokatu zen larunbatean. Lau eta erdian ibili ziren pilotariak Beotibarren ondorengo emaitzak lortuz: jubenetan, Zubeldiak 14-22 galdu zuen Goikoetxearen aurka; Altunak, aldiz, 22-20 irabazi zion Alberdiri, markagailuan atzetik nabarmen joan ondoren; eta etorkizun mailako lehiaren, Ruiz De Larramendik 22-13 irabazi zion Muruari. A. IMAZ



ASTEAZKENA, 2019KO MAIATZAK 29
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



GREBAREKIN JARRAITZEN DUTE

Garbaldiko langileek manifestazioa egin zuten atzo, Tolosan. 252 egun daramatzate greban eta soldata arrakalarekin amaitzeko eskatzen dute. Garbaldiko langileek epaitegieta eta polizia etxeetako garbiketa egiten dute, eta besteak beste, epaileen, fiskalen eta administrazioen babesa jaso dute. Grebaren ondorioz irailetik sakon garbitu gabe daude Gipuzkoako ertzain etxeak eta epaitegiak, eta nonahi pilatzen ari dira zabor poltsak eta zikinkeria. IRATISAIZAR

ZORION AGURRAK



Urte askoan!

Joxe Mari Zinkunegi eta Sagrario Soroa Iturrioz.

Maiatzaren 29an 62 urte ezkondu zinetela. Zorionak eta egun ona pasatu zuten seme-alaben, biloben eta birloben partetik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

ASTEAZKENA 29

AGENDA

Erakusketak

Tolosa. *Speeltheater Holland*, Topic zentroan, 10:00etatik 19:00etara. Speeltheater Holland, Onny Huisink eta Saskia Jansek 1976an sortu zuten txotxongilo konpainia holandarra izan zen eta 40 urte baino gehiago mundu guztian zehar biran ibili zen, gazte zein helduentzat antzez-tuz. Txotxongiloak aktore antzerkia, dantza eta musika bezalako arteekin uztartzeak dakarren berrikuntzarengatik nabarmendu ziren.



Tolosa. *Kostako bidetik*, Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era. Zigor Garcia artista plastikoaren lanekin osatutako erakusketa.

Zizurkil. Andoni Roblesen erakusketa, Atxulondo kultur etxean, 19:30etik 21:00etara.

Tolosa. *Jorge Malcorra, lanak*, Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era. Tolosarrak margolanak bildu ditu.



ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Tolosaldea Garatzeneko tartea eta Olatz Godoy *Kale Kantotik*.
11:00-12:00. Eutsi goiari.

12:00-13:00. Entzuteko jaiok.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)arinaizela.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Ur eta lur.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Denbora da poligrafo bakarra.
22:30. Galdegazte.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 0915.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldiak hobetzeko joera izango du. Goizean eta arratsaldeko lehen orduarte oraindik ipar-mendebaldeko haizea, hodeiak eta euria izango ditugu. Euri gutxi botako du, baina zer edo zer bustiko du. Arratsaldetik aurrera erabat atertu, haizeak hego puntu bat hartu eta ostarte zabalak irekiko zaizkigu. Termometroek gora egingo dute zertxobait eta maximoa 15-17 graduan errendituko da.

Bihar. Giro eguzkitsua bueltan. Aurreko egunetako joera alde batera utzi eta giro eguzkitsua, epel eta egonkorra izango dugu. Haizeak ekialdeko ukitua izango du eta horrekin zeru urdina izango dugu, nahiz goizean behelainoa agertu eta tarteka hodeixkaren bat edo beste ikusi. Gainera, erdi-mailako geruzetan aire epelagoa sartzen joango denez termometroek nabarmen egingo dute gora eta goiz fresko baten ostean, eguneko erdiko orduetan 22-24 gradu artean joko dute goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.